

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hasi dira Martzillako gazteluko horma-irudiak jartzen, gaztelua zaharberritzeko lanen ostean

Corpas kontseilariak lanak bisitatu ditu, Nafarroako Kultura Kontseiluko Ondare Batzordeko kideekin batera

Martes, 10 de mayo de 2011

Juan Ramón Corpas Mauleón Kultura eta Turismo kontseilariak, Pedro Luis Lozano Úriz Kultura zuzendari nagusiak eta Nafarroako Kultura Kontseiluko Ondare Batzordeko kideek gaur goizean bisitatu dituzte Martzillako gazteluko zaharberitze-lanak.

Lanak Nafarroa 2012 Planaren barruan sartzten dira eta 9.617.272,40 euroko aurrekontua dute. Aurrekontu horren %90 Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du, eta %10 Martzillako Udalak. Lanak 2008ko abenduaren 15ean hasi ziren, Castillo de Marcilla ALZ ABEEri esleitu ondoren. ABEE hori Construcciones Aranguren SA, Construcciones Leache SL eta Construcciones Zubillaga SA enpresek osatzen dute. Lanen betearazpen-epea 36 hilekoa da.

Martzillako gaztelua Nafarroako Gobernuarena da eta Kultura Intereseko Ondasuna da. Eraikinak ez zuen erabilerarik eskuratu zenean eta horren eraginez nahiko hondatuta zegoen, batez ere barrualdeko egitura.

Zaharberitze-programan udaletxea, liburutegi publikoa, musika-eskola eta ekitaldien aretoa sartzten dira; gaztelura bisita turistikoa egiteko aukera ere ezarri da, eta alderdi horri arreta berezia eskaintzen zaio.

Lanak ezarritako epeen arabera garatzen ari dira. Gaur egun instalazioetan eta gazteluaren barrualdeko estalkietan lan egiten ari dira,



Corpas kontseilaria eta Ondare Batzordeko kideak, Martzillako gazteluko arma-patioan.



Corpas kontseilaria eta Ondare Batzordeko kideak horma-irudien zaharberitze-lanak

baita arma-patioan zoladura jartzen eta gazteluko kaperako ikusten. horma-pinturak zaharberritzen eta jartzen ere. Azken zeregin hau Espainiako Ondare Historikoaren Institutuaren finantzaketarekin egin da.

Pinturak zaharberritu eta berriz jartzea

1999an, gazteluaren barrualdea hondatuta zegoenez, kaperako, sakristiako eta otoiztegiko horma-irudiak kendu, sendotu eta lekualdatu ziren. Lehiaketa publikoan jardun hori Sagarte SL enpresaren esku utzi zen.

Pinturetan esku-hartzea egin ondoren, horma-irudien laginen analisi estratigrafikoa egin zen, prozesuaren erregistro grafiko eta fotografikoa, pintura zuten gelen fotogrametria azterlana, temperatura eta hezetasun erregistroa eta pinturen azterketa historiko-artistikoa.

Laginak aztertu ondoren, pigmentuen eta eransgarrien material organikoen eta ez-organikoen karakterizazioa eta motrailuen osaera mineralogikoa zehaztu ziren.

Lan hori Martzillan 2010eko uztailetik 2011ko uztailera gauzatuko da. Gazteluko zenbait areto egokitu dira zaharberritze lanak egiteko.

Berriz jartzeko prozedura

Aldamioak jarri ondoren, pinturak berriz jartzen ari dira. Euskarri zurrunean jartzen ari dira, jatorrizko horma dagoen inguruetan izan ezik, leku horietan horma horren gainean zuzenean jartzen baitira.

Pinturak kendu aurretik egindako fotogrametria azterlanean jatorrizko arkitekturaren geometria zehatza lortu zen, eta hori ezinbestekoa da eraitsitako gelak behar den moduan berreraikitzeke.

Era berean, motrailuak berriz integratu dira pinturen azalera berreraikitzeke. Horren barruan hutsuneak nibelatu eta panelen artean junturak zigilatu dira.

Jarraian berrintegrazio kromatikoa egingo da, multzoaren batasun bisuala berreskuratzeko, esku-hartze albait txikiena eginda; horren ostean, amaierako babesa eta dokumentazioa etorriko dira.

Kultura Ministerioarekin lankidetzari esker egindako zaharberritzeari esker, alfarje errenazentista eta igeltsuzko trazeriak dituzten bi leiho berreraikitzen ari dira. Horien instalazioa horma-irudiak berriz jartzeko lanekin modu koordinatuan egiten ari dira. Lan hori Nafarroako Gobernuak finantzatu du, 37.666 €-ko aurrekontua du eta enpresa esleipendun berberak in situ egiten du.